



HERRIKO KONTSEILUAREN ERABAKIA ORTZAIZE HERRIA

205eko abenduaren 2ko saioa

Bi mila eta hogeita bost urteko abenduaren 2an arratseko zortzietan biltzera deiturik, herri honetako Herriko Kontseilua frantses legeak behartu kopuruan bildu da, bilkuren ohiko lekuan Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza saioko lehendakari izanik.

Presente ziren: CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Ezin etorriak: AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, GOICOECHEA Iñaki

Saioko idazkaria: IDIART Claudine

Deialdiaren data: 2025eko azaroaren 28a

Afixatze data: 2025eko azaroaren 28a

5. ERABAKIA: HERRI BILTZARRAK AUZAPEZARI DELEGAZIOA EMATEA MAILEGU BATEN GAUZATZEKO ARROSATEGIKO LANEN FINANTZATU AHAL IZATEKO

(7.3.1. nomenklatura)

Auzapezak azaldu du Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2122-22 artikulua aukera ematen diola Herri Biltzarrari Auzapezari delegazioa emateko, bere agintaldi denborarako, artikulua hartan xedatzen diren ahalmenentzako eta bereziki aurrekontuan aurreikusitako diren inbertsioen finantzatzeko maileguak egiteko, baita maileguen kudeatzeko finantza ekintza oro, besteak beste tasa eta truke arriskuen estaltzeko ekintzak.

Auzapezak azaldu du Arrosategia etxearen energia-arraberritze proiektuarentzako 440 000 euroko mailegua egin beharko dela. Zehaztu du, urte bukaera hurbiltzen ari denez, eraginkorrek izan beharko dutela mailegua abenduaren 31a baino lehen izenpetzeko. Horretarako, biltzarrari proposatu dio mailegu horren gauzatzeko delegazioa eman diezaion.

Auzapezaren azalpenak entzunik eta luzaz eztabaidaturik, Herri Biltzarrak,

Kontuan izanik, Herria behar bezala administratzeko komeni dela Auzapezari delegazioa ematea;

Kontuan izanik, Auzapezak delegazioaz egiten duen erabileraren berri emanen duela herri biltzarraren bilkura bakoitzean,

ERABAKI DU, Auzapezari delegazioa ematea Arrosategia etxearen energia-arraberritze proiektuarentzat 440 000 euroko mailegu baten egiteko.

Jardunean diren kideak: 15

Presente zirenak: 12

Adierazi diren bozkak: 12

ALDE: 12

KONTRA: 0

ABSTENTZIOA: 0

Gorago zehaztu urte, hilabete eta egunean deliberaturik. Presente ziren kideek erregistroa izenpeturik. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

Ortzaizen, 2025eko abenduaren 4an
Auzapeza Jean-Marc OÇAFRAIN

Honako akta indarrean izanen da,
2025eko abenduaren 8an argitaratu edo jakinarazi ondotik
eta egun berean suprefekturara igorri ondotik.